BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

886

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 11koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (2/2014-A prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (2/2014-A prozedura laburtua) dokumentazio eskaeraren ustezko ezespenaren kontra jarri da. Eskatutako dokumentazioa Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko urriaren 30eko Ebazpenez deitutako Ertzaintzako ikuskapen eskalako ofizial kategorian sartzeko hautaketa prozedurari buruzkoa da (azaroaren 24ko EHAA, 225.zk.). Hori dela eta, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak jatorrizko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du, eta, horrenbestez, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2014ko otsailaren 11.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.